

# KANTAURIA



(BIURSA)

Zugasti sekularrak,  
 ibai chit malsoak  
 iturricho garbiak,  
 aizecho gozoak,  
 mendi tantayak, ibar  
 betikotz berdeak,  
 eche churi eder asko  
 dorre beltz galantak,  
 ichaszabal-zabala  
 betiko ibilleran,  
 bake eta atsegiña  
 biyotz guzietan,  
 eta izerdi dontsua  
 kopet prestuetan.....  
 ona emen nere kanta  
 erasi garriak,  
 eta gauza oyek ditu  
 nere kantauriak.  
 Iñoiz galdutzen banaiz  
 billanatatela,  
 Iger-ko puntatikan  
 Finister puntura.

† J. MANTEROLA.

